

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Liburu batean bildu dira 1900-1940 artean argitaratutako 200 aldizkari nafar eta prentsa-goiburu

Nafarroako Gobernuak argitaratu duen Ángel Zocoren "Publicaciones periódicas en Navarra (1900-1940)" lanean jaso dira

Jueves, 21 de agosto de 2014

Nafarroako Gobernuak argitaratu duen Ángel Zocoren "Publicaciones periódicas en Navarra (1900-1940)" lanean agertzen dira 200 prentsa-goiburu, aldizkari etab. Zeudenik ere ez da jakin orain arte.


Lanak XX. mendearen hasieratik 1940. urtera arteko Nafarroako aldizkari guztien inbentarioa eta katalogazioa jaso ditu, baita aurreko mendean sortutako baina garai horretan oraindik iraun zuen prentsa ere.

Denera hirurehun goiburu baino gehiago agertzen dira. Denak jasotzeko, egileak 98 zentro hemerografiko kontsultatu ditu, esate

baterako, probintziako artxiborik garrantzitsuenak (Nafarroako Artxibo Nagusia, Iruñeko Udal Artxiboa eta Gobernuaren Ordezkaritzarena); barruti judizialeko edo merindadeko udal-artxiboetako eta artxibo pribatuetako goiburuak; komentu eta apaiztegietako hainbat liburutegi, eta Euskal Autonomia Erkidegoan (12), Madrilen (10), Espainiako hainbat hiritan (7) eta Renon (Estatu Batuak) dauden beste batzuk.

Mapa soziohistorikoa

Liburua gaur goizean aurkeztu dute egileak eta Juan Luis Sánchez de Muniáin Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak Nafarroako Liburutegi Nagusian. 1994an Euskal Herriko Unibertsitatean Zocok aurkeztutako eta orain arte argitaratu gabeko doktore-tesian dago oinarrituta. Kulturako Zuzendaritza Nagusiak 500 ale kaleratu ditu, eta 15 euroren truke salduko dira.



Ángel Zocoren lanaren azala

Hitzaurrean azaldutakoaren arabera, orain arte, P.A. Pérez-Goyenak *Ensayo de Bibliografía Navarra* lana idatzi zuen, 1910 urtera arteko argitalpenei buruzkoa, eta Jaime del Burgo Torresek *Catálogo bibliográfico. Obras impresas en Navarra 1936-1945* lana plazaratu zuen, Zocoren ustez "lan osatugabea" izan zena.

Liburu honetan, egileak 300 goibururen eta ia 200 aldizkariren (aurreko bi lanetan agertzen ez direnak) aipamen zehatza jaso da. Aldizkaritzat jotzen dira noizbehinka kaleratzen zirenak, argitalpen batetik besterako tarteak erregularrak izan ez edo argitalpenak aldakorrek eta ezegonkorrek izan arren.

Egileak, argitalpenen kopurua zehazteaz gain, horien ideologia, eragin-eremua, argitalpenak jaso eta irakurtzen zituzten pertsonen kopurua, aholkulariak, eta gaitasun intelektuala eta ekonomikoa ere gehitu ditu, aztertuta garaiaren mapa soziohistoriko interesgarria sortuz.

Lanaren hasieran, Zocok albisteen sorrerari eta komunikazio-prozesuari, iritzian eragiteko eta iritzia agertzeko duen gaitasunari, eta albisteen legezko araubideari buruzko hausnarketa egiten du. Gainera, aldizkako argitalpenen zenbait alderdi teknikoren inguruan ere mintzaten da, adibidez, tailerrak, argazkilaritzaren sarrera, publizitatea finantzatzeko bitarteko gisa eta irakurleak.

Liburuan agertzen den zatirik luzeena argitalpenen fitxei buruzkoa da, hau da, zuzendariei, jabeei, erredaktoreei, argitaratzeko tokiari, ideologiari, hasieraren eta etenaren datei, formatuari, hedapen-eremuari, tiradari, publizitateari, gobernuak agindutako etenaldiei eta, ezezagunenak eta aurkitzen zailenak direnen kasuan, kokapenari buruzko informazioa.

Bost egunkari eta hiru astekari politiko

Ángel García Sanz Marcotegui irakasleak idatzi du liburuaren hitzaurrea eta obratik atera daitezkeen ondorio batzuk nabarmentzen ditu: argitalpen batzuen egonkortasuna, nahiz eta beste probintzia batzuetakoak ere egonkorrek izan, eta argitalpen erlijiosoen kopuru handia (68), guztien % 22, 6.

Halaber, argitalpen politikoaren portzentajea ere azpimarratzen du (87); heterogeneotasun politikoa zegoela adierazten du horrek, "monolitikoki karlistak ziren probintziaren eta hiriburuen irudia hautsi" baitzen. Izan ere, 1905 eta 1913 artean, Iruñean, egunean bost egunkari kaleratzen ziren (*La Tradición Navarra*, integrista; *El Pensamiento Navarro*, karlista; *El Eco de Navarra* eta *Diario de Navarra*, kontserbadoreen aldekoak, eta *Demócrata Navarro*, kanalejista), eta hiru astean (*El Porvenir Navarro*, errepublikarra; *La Verdad*, UGTren aldekoa, eta *Napartarra*, euskal abertzalea).

XIX. mendeko prentsa liberal indartsuaren beherakada eta prentsa kontserbadorearen hazkuntza ere nabarmentzen du. Azpimarratzekoa da, halaber, Tuterako argitalpenen murrizketa. Guztien % 31 ziren XIX. mendean eta % 19 dira orain.

II. Errepublika aldarrikatzean, erregimen berriaren aldeko argitalpenak agertu ziren, baina egunkari bakarra, *Democracia*, zortzi hilabete iraun zituena.

Amaitzeko, aipagarriak dira kulturarekin, zuzenbidearekin, osasunarekin, lanbideekin erlazionatutako argitalpenak, aldizkari ekonomiko-administratiboak, baita irakaskuntzari eta kirolei loturikoak ere. Horien bidez, "iraganean ainguratuta, geldituta eta bereziki lebitarra den hiriaren estereotipoa indartzen da".